

Literatura

Iban Zaldua

«Gerra zibilaz idaztea izan daiteke gaurko *Gauzaz* idazteko modu bat»

Zu hondartzan eta guk gerra ekarri. Hau ez da ba Normandia, harea odolez margotzeko... Zer ari da gertatzen? Ba, Gerra zibilak jarri diola izena Iban Zalduak datorren astean ARGIArekin banatuko den udako ipuinari. Ipuina aitzakia hartuta, gatazka dialektiko txikia izan dugu idazlearekin –ezer seniorik ez, lasai ama–, euskal literaturaren armez, lubakiez eta fronteez.

GORKA BEREZIARTUA

Argazkia: Iñigo Azkona

“Iban Zaldua? Ipuingilea!” dio jendeak duda gutxiarekin. Baina geroz eta luzeago idazten hasi zara: azkena, nobela. Ipuin hau bera ere urrun dago zure aurreneko lanetako KO azkarretatik. Heldutasuna da, ala nondik moztu ez dakizu?

Berrogeita hiru urterekin heldutasuna iristen ari bazait, jai daukat, ez duzu uste...? Edonola ere, ipuingileak eta nobelagileak, biek jakin behar dute nondik moztu: printzipio hori genero guztiei egokitzen zaiola pentsatzen dut. Eta ez daukat nire ipuinak luzatzen ari diren inpresioa: tamaina honetako dezente idatzi ditut lehen ere, egia den arren agian erosoago sentitzen naizela sei-hamar orrialde inguruko luzerakoekin. Baina ARGIAk orrialde kopuru zehatz bateko ipuina idazteko agindu zidan, eta hala egin dut. Jakina, hiru laburrago egin nitzakeen, adibidez, baina luzera zehatz horretarako ideia bat neukan, eta, gainera, irudipena daukat, erosoegi sentitzea ez dela gauza ona idazle batentzat...


Ipuinaren apologista sutsua, Euskal Herria “ipuin herrialdea” dela diozu, ez “nobela nazioa”. Norbere lana goraiatzeko modu sotilak ikusi ditut, baina hau...

“Ziurrenik euskaraz argitaratzen ari den literaturarik onena itzulpenetan daukagu. Eta, halere, ez ditugu irakurtzen”

Idea hori Rodrigo Fresán idazleari lapurtu nion: bere artikuluan argentinarren ipuin-gintzarako zaletasuna esplikatu nahi zuen, eta hipotesia euskal kasura ondo egokitzen zela iruditu zitzaidan. Hala ere, arrazoi osoa duzu: denok daukagu autopropaganda pixka bat egiteko eskubidea, baina behintzat ez naiz iristen nire azkeneko liburua “iraultzailea” dela aldarrikatzera, adibidez... Dena den, halako zerbait esateko oinarririk ez banu izan, ez nukeen egingo. Eta uste dut oinarriren bat badagoela: euskal idazleen ipuin-produkzioaren bikaintasuna, azkeneko urte hauetan. Hor daude, besteak beste, *Haragia*, *Diotenez*, *Umeez gezurra esaten dutenetik*, *Euskal hiria sutan*, *Bizia lo*, *Euri kontuak*, *Sargori*, *Itzalen itzal*, *Obabakoak*, *Azukrea belazeetan*...

Eta hala ere, azken aldian triste samarrak ematen dute *Volgako Batelariak*en idazten ari zaren gogoretan. “Inpresio bat: minimoen programekin etsitzera eramaten gaituen xirripa ahula baino ez dela, geroz eta gehiago, egungo letren produkzioa”. Hain gaizki, e?

Ez, hain gaizki ez: pesimismoarako joera naturala daukat, ez dago besterik; noizean behin beheraldiak izaten ditut. Azken aldi



honetan, agian, itxaropen handiak nituelako hiruzpalau liburutan jarriak, eta, tamalez, eskuetatik erori zitzaizkidalako. Eta, bestalde, arduratuta nagoelako herri honetan itzulpenei ematen diegun garrantzi txikiarekin. Angel Errok dioen bezala, ziurrenik euskaraz argitaratzen ari den literaturarik onena itzulpenetan daukagu, eta erraza da ondorioztatzea zergatik: kontsumo literatura gutxi itzultzen denez, Literaturaren Historiak testatutako liburuak itzultzen dira gurean, batik bat, eta hobeak dira, ondorioz, edozein euskal liburu garai-kide baino. Eta, halere, ez ditugu irakurtzen, ez diegu kasurik egiten apenas. Dezente deprimitzen nau horrek.

Eta deprimituta ere idazten jarraitzen duzu! Zer nahi duzu, historia irakatsi ordez, historiak zu irakats zaitzan?

Niretzako idaztea ohitura bat bihurtu da honezkero: bizioa batzuetan, gaixotasuna bestetan. Disfrutatzen dut horrekin, gehienetan. Historia irakasten bezainbat. Duin egin nahiko nituzke gauza biak, hori da nire aspirazio nagusia. Ez dut transzenditzeko asmo berezirik: hemendik ehun edo berrehun urtetara, literaturaz arduratzen

“Pesimismorako joera naturala daukat, ez dago besterik; noizean behin beheraldiak izaten ditut. Azken aldi honetan, agian, itxaropen handiak nituelako hiruzpalau liburutan jarriak, eta, tamalez, eskuetatik erori zitzaizkidalako”.

denik geratzen bada ere, inor ez da gutako gehienez gogoratuko. Gu duela berrehun urteko idazle gehienez gogoratzen ez garen bezalaxe.

“Abertzale mundutik kanpo diren idazleek dute gaurko gatazka aipatzen; eta abertzale munduan direnek dute 36ko sarraskia aipatzen”. Itxaro Borda dixit. Gudariak dira ipuin honetan protagonista. Abertzalea da Iban Zaldúa?

Kar, kar, kar. Depende goizean zein umorez altxatzen naizen. Uste dut garai batean ia egunero esnatzen nintzela abertzale, baina gaur egun ez zait horren maiz gertatzen: nire identitatean beste tasun batzuek hartzen dute nagusigoa abertzaletasunaren gainean. Adibidez, nire thesmithszaletasunak, edo nire philpkdickzaletasunak. Nahiz eta egia den, Anjel Lertxundik zioen bezala, euskaraz aritzen garen guztiok garel, noiz edo noiz eta neurri ezberdinetan, abertzale: tamalez.

Dena den, ez dakit oso ados nagoen Itxaro Bordarekin: badaude goizero oso abertzale esnatzen diren idazleak, *Gauzak* aritzen direnak. Alde batera utzi gabe Gerra Zibilaz idaztea izan daitekeela, batzuetan, gaurko *Gauzak* idazteko modu bat, orobat. ■